

Uztailaren 8an
URTEAN ZEHARREKO 14. IGANDEA

Agurra

Errukiaren eta maitasunaren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jainkoaren Hitzak biltzen duen Eliza gara. Hitz hori hausnartzen dugu eta Hitz hori ospatzen. Horrek sendotzen du gure bizitza eta jartzen gaitu bidean fede sendoz ebanjelioa zabaltzeko.

Damu-otoitza

Senideok: Presta ditzagun geure buruak, misterio santuak bihotz-garbiz ospatzeko. Kontura gaitezen bekatari garena, eta itxaropen osoz barkamen eska diezaiogun Jaunaren bihotz onari.

—Jesus Jauna, betiko biziaren hitzak dituzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bihozbera eta apala zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gugatik heriotzaraino menpeko egina: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko Jauna, zure Semea beheratuz,
jaso egin duzu eroria zegoen mundua;
eman zeure fededunei egiazko poza,
eta egizu, bekatuaren uztarripetik askatu dituzunek
betiko zoriona izan dezatela.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren handitasuna, gizon-emakumeon txikitasunean eta ahultasunean agertzen da. Ezaugarri handiak espero dituenak ez, baizik eguneroko jardunean pozik bizi denak aurkitzen du egiaz Jainkoaren agerpena.

Lehenengo irakurgaia (Ez 2, 2-5)

Ezekiel profetaren liburutik

Egun haietan, espiritua barrura sartu zitzaidan, eta zutik jarri ninduen; eta norbait niri mintzatzen entzun nuen.

Honela esan zidan: «Adamen seme! Israelgo seme-alabetara bidaltzen zaitut, aurka altxa zaidan herri bihurri horregana. Hauek eta hauen arbasoak, nire aurka ari izan dira gaurdaino. Hauen seme-alabak ere bekoki zakarrekoak eta bihotz gogorrekoak dira; horiegana bidaltzen zaitut, eta honela esango diezu: "Hau dio Jaunak". Entzuten badizue eta ez badizue —herri bihurria baitira—, jakingo dute badela profeta bat haien artean».

Erantzun-salmoa (Sal 122, 1. 2. 3-4)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a
ta mai - ta - su - na.



Zugana jasotzen ditut begiok, Zugana,
zeruetan zauden Horrenga. R/.

Morroien begiak begira baitaude nagusien eskuei,
neskamearen begiak etxekoandrea eskuei:
horrela gure begiak Jaunarengana, '
gure Jainkoarenga, daude,
gutaz erruki dadin arte. R/.

Erruki zaitez, Jauna, gutaz erruki zaitez,
esker txarrez ase eta beteak baikaude.
Ongi aserik dago, bai, gure barrena
ustetsuen irriz, harroen esker txarrez. R/.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 12, 7-10)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Harro ez nadin, hementxe daukat nik ezten bat neure haragian, Satanasen aingerua, makilka narabilena, harro ez nadin. Eta hiru aldiz eskatu diot Jaunari, uxa dezala niregandik. Baina Berak honela esan dit: «Nahikoa duzu nire grazia; makalaldian iristen da bere betera indarra».

Pozik harrotuko naiz, beraz, nire argaltasunez, Kristoren indarra bizi dadin niregan. Horregatik pozik nabil Kristorengatik ahulerietan, laidoetan, gabezietan, erasoaldietan eta estualdietan. Ahul naizenean bainaiz indartsu.

Aleluia (Ik. Lk 4, 18)

The image shows two staves of musical notation. The top staff is in treble clef, 2/4 time, with a key signature of one flat (B-flat). The melody consists of quarter and eighth notes. The lyrics 'A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.' are written below the notes. The bottom staff is a bass line consisting of quarter notes.

Jaunaren Espiritua niregan dago,
behartsuei berri ona ematera bidali nau. R/.

Ebanjelioa (Mk 6, 1-6)

Homiliarako argibideak

“...beretarrek ez zuten onartu”

San Joanen Ebanjelio hasierakoa betetzen da: «Bere etxera etorri zen, baina beretarrek ez zuten onartu. Probatua zuen hori Ezekielek, bere herriaren zori bera (erbesteratzea) sufritu arren, herriak entzuten ez zionean. Probatu zuen Paulok ere zenbait alditako arrakasta, beste batzuetan, zailtasun eta pertsekuzio bilakatu zaitzaionean.

Baina Jesusek ezagutu zuen benetan onartua ez izatea zer den: kanpoko herrietan txalotua iazn zen, Jairoren fedea eta kanaandar emakumearena ezagutu zituen... eta Nazareta iritsi zenean ez zioten sinesten. Bakarrik utzi zuten, hasieran harriduraz hartu bazuten ere gero haserratu eta ia amildegitik behera botatzeko arriskuan ere egon zen Jesus.

Ongi egindako galderak zituzten: «Nondik du honek hori guztia? Zer da honi eman zion jakinduria hau, eta bere skuz egiten dituen mirariak? Hau ez al da arotza, Mariaren Semea?». Baina ez zuten, ordea, jakin galdera hauek gainditu eta arrazoizkoena zen ondorioa iristen: Jainkoa bere alde izango du, bestela ez luke egingo egiten

duena. Galderetan itxiak geratu ziren. «Eta ezin sinetsi zuten harengan». Jeloskor zeuden beharbada, aldameneko herrietan, Kafarnaumen esaterako, mirariak egin zituelako eta Nazareten ez. Edota Mesias arruntegia, apalegia iruditzen zitzaien, eta ez itxaro zuten askatzaile boteretsu eta indartsua.

Min emango zion Jesusi haien federik ezak eta garratz esan zuen: «Bere herrian, bere senitartean eta bere etxean bakarrik gutxiesten dute profeta».

Betidanikoa da federik eza, beti, gaur ere bai. Fedea deserosoa eta eskakizun handikoa gerta daiteke. Mezua gustokoa ez denean mezularia baztertu ohi du askok. Eta Jesusen mezuak beraien ziurtasunetan sendo dagoenarentzat balantza eragiten du. Jesus onartzeak, Berak esandakoa onartzea eskatzen baitu, eta onartutakoa bizitzea...

Gaur ere gertatu ohi da, Elizak aldarrikatzen duen Jesusen mezua deseroso edo baztergarri gertatzea zenbaitentzat. "Etxekoentzat" deseroso gertatzea litzateke gogorrena, bere Hitza entzun eta Eukaristia ospatzen dugunontzat, alegia. Errutinak, fede ahulak, utzikeriak... sor dezake Kristorenganako gure lotura ahultzea... Beharrezkoa dugu bihotza zabaltzea eta fedearen berritasuna, eragiten duena, berreskuratzea. Jesus onartzeko, bere erara aldatzeko...

Sinesgabetasunaren gainetik ere, ebanjelioa zabaltzen jarraitu

Egun bizi dugun girora etorritz, sinesgabetasunak ez du gugan koldarkeria edo utzikeria ekarri behar. Guk testigantza ematen jarraitu behar dugu toki guztietan.

Une zailen erdian Ezekielek esana entzun dugu: «espiritua barrura sartu zitzaidan, eta zutik jarri ninduen»; hitz egiten jarrai zezan

agindu zion. Berdin ikusten da Paulorengan ere, ez kartzela, ez meatxu... ezerk ez du geratzen Apostoluaren kemena.

Jesusek ere jarraitu egin zuen. Eta gu ere deituak gaude, Jainkoaren ahotsa entzunarazten jarrai dezagun. Gure fedea zaindu eta sendotu behar dugu, besteei laguntzeko gai izateko.

Ahulak, baina indartsuak

Gure kristau bizitzan suma dezakegu ahultasuna. Profetak eta apostoluak ez ziren super-gizonak edo heroiak. Ba zaituzten ezinak eta beldurrak. Baina izan zuten beti konfiantza sendoa. Horixe izan behar dugu garbien: Ebanjelioa zabaltzeko eginkizunean bitartekoak besterik ez gara. Jainkoa ari da bere indarra zabaltzen eta Berak daki nola. Guri ereitea dagokigu: “Bere graziak” laguntzen digu, Bera da indarra gure ahultasunean. Norbere ahultasuna eta mugak ezagutzen eta onartzen dituenak, besteenak ere errukiz begiratzen eta zorrotz ez epaitzen ikasten du... Horrek geure bizitza eta geure harremanak alda ditzazke... Kristoren erara aldatu... Jainkoarenganako norabidean jarri: gure indar, gure ipar eta gure salbatzaile den Jainkoaganako bidean.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak:

- Egigun otoitz Frantzisko Aita Santuaren eta Jose Ignazio gure gotzainaren alde; Jaunak eman diezaiela adorea eta argia beren ardurapeko elkarteak santutasunez zaindu ditzaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egigun otoitz Jaunak egiazko bakea eman diezagun; bakearen egiazko iturria denak eman diezagula bizikidetza baketsua eta barneko espirituzko-bakea. Eska diezaiogun Jaunari.

—Egigun otoitz Ebanjelioaren bidean zintzo saiatzen diren guztien alde, Jaunak asmo horretan lagun diezaien; eta berekoikeriak Jainkoarengandik urruntzen dituenak izan dezatela bihotz berria iristeko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.

—Egiogun otoitz Jainkoari hildakoen alde, bereziki gure senide, adiskide eta ongile hildakoen alde. Jaunak bere erruki handiz bere aintzan onar ditzan santu eta aukeratu guztien artean. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun, Aita guztiz santua, gure otoitzak eta argi gaitzazu Zure Espirituaren argiaz, behartsu eta ahulak garela ahaztu gabe Kristoren Piztueraren indarra goza dezagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Hain dohain handiak harturik, Jauna, eskatzen dizugu
salbamen fruituak irits ditzagula
eta Zu goresten bizi gaitzela.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**